

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2026ko ordainagiriak kobratzea

Jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko Okondoko udalerriko 2026ko matrikula jendaurrean jarri ondoren erreklamaziorik aurkeztu ez den ez gero, onetsi egin du foru aldundiak.

Bi hilabete izango dira ordaintzeko; hau da, 2026ko urriaren 1etik 2026ko abenduaren 1era.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, betearazte aldia hasiko da ordaindu ez diren kuotetarako, berez eta besterik gabe, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatuko dira, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorren 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio.

Ordainketa banketxean helbideratuta duten zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko, bankuak egingo baitu zordunketa 2026ko azaroaren 3an.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan emango zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara), dirua Caja Rural de Navarra entitatean sar dezaten.

Okondo, 2026ko abuztuaren 28a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO